

AURKEZPENA

Bigarren Hezkuntzako arloetako irakasleei (natur eta gizarte zientziak, matematika, etab.) zuzenduta dago arloetan eskola-hizkuntzaren berariazko lanketa egiteko eta irakats estrategietan trebatzeko.

HELBURUAK

1. Arloetako irakasleek lantzen dituzten testuen ulermena hobetzeko estrategiak ezagutzea.
2. Arloetako irakasleak ikasleen hizkuntza-komunikazio gaitasuna garatzeko estrategietan trebatzea.
3. Ikasleen ulermena ebaluatzeko tresna multimodalak (irudia eta sormen bidezko beste adierazpide batzuk) ezagutzea.

IKASKUNTZA EMAITZAK

- Bigarren Hezkuntzako arlo-testuetan ulermena errazteko funtsezkoak diren eskola-hizkuntzaren ezaugarriak eta hizkuntza-trebetasun akademikoak (CALS) identifikatzea.
- Gaitasun akademikoen garapena bultzatzeko estrategia pedagogiko eraginkorrak hautatu eta testuinguru eleaniztun eta kulturalki anitzetara egokitzeko gaitasuna garatzea.
- Ikasleen hizkuntza-aniztasuna kontuan hartuta, arloko irakasgaietan eskola-hizkuntzaren garapena bultzatzeko jarduera didaktikoak diseinatzeko gaitasunean trebatzea.

EHUKO IRAKASLEAK ETA ZUZENDARIAK

Oihana Leonet → oihana.leonet@ehu.eus

Eider Saragueta → eider.saragueta@ehu.eus

HARTZAILEAK

Bigarren Hezkuntzako arloetako irakasleak (natur eta gizarte zientziak, matematika, etab.) arloetan eskola-hizkuntzaren berariazko lanketa egiteko eta irakats estrategietan trebatzeko. Dena den, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko edota interesa duen irakasle orok parte hartu dezake.

IKASTAROAREN EGITURA

Sarrera

1. Gaia: Konpetentzia eleaniztuna
2. Gaia: Translanguaging
3. Gaia: Arloetako berariazko hizkuntza lantzeko estrategiak
4. Irudien bidezko adierazpena eta ebaluazioa

MODALITATEA ETA METODOLOGIA

Norbere kabuz egiteko online, EHUon plataformaren bidez.

Kudeaketa arazorik baduzu idatzi: eider.saragueta@ehu.eus

DATAK

Hasiera: 2025ko urriaren 27an

Amaiera: 2025ko abenduaren 30an